



UDALTZAINGOAREN MEMORIA 2025



Beasaingo Udala

- | | |
|---|---------|
| 1. MEMORIAREN HELBURUA ETA EREMUA | 3. or. |
| 2. GIZA BALIABIDEAK ETA ANTOLAMENDU EGITURA | 3. or. |
| 3. BALIABIDE TEKNIKOAK | 4. or. |
| 3.1. Polizia ibilgailuak | |
| 3.2. Transmisioak | |
| 3.3. Trafikoa kontrolatzeko kamerak | |
| 4. HAINBAT ZERBITZUEN GARAPENA | 5. or. |
| 5. TRAFIKO SALAKETAK | 5. or. |
| 5.1. Salaketak Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrean | |
| 5.2. TAO eremuko salaketak | |
| 5.3. Oinezkoentzako gunerako sarbideen kontroleko salaketak | |
| 5.4. Gehiegizko abiaduragatiko salaketak | |
| 5.5. Alkoholaren eraginpean gidatzeagatik jarritako salaketak | |
| 5.6. Drogen eraginpean gidatzeagatik jarritako salaketak | |
| 6. TRAFIKO ISTRIPUAK | 7. or. |
| 6.1. Kalte materialak eragin dituzten istripuak | |
| 6.2. Zaurituak eragin dituzten istripuak | |
| 6.3. Polizia-eginbideak dituzten istripuak | |
| 7. TRAFIKOKO ESKU-HARTZEAK | 7. or. |
| 7.1. Abandonatutako ibilgailuak | |
| 7.2. Bide-segurtasunaren aurkako delituak | |
| 7.3. Ibilgetutako ibilgailuak | |
| 7.4. Kirol-probetarako baimenak | |
| 8. POLIZIA JUDIZIALA | 8. or. |
| 8.1. Udaltzaingoaren bulegoetan jasotako salaketak | |
| 8.2. Bideratutako atestatuak | |
| 8.3. Babes-aginduak | |
| 8.4. Lokalizazio iraunkorreko aginduak | |
| 8.5. Ofizio judizialak | |
| 8.6. Dokumentazioa galtzea | |
| 9. HERRITARREN SEGURTASUNA | 10. or. |
| 9.1. Manifestazioak eta kontzentrazioak | |
| 9.2. Herritarren Segurtasunari buruzko Legearen arau-hausteen salaketak | |
| 10. POLIZIA ADMINISTRATIBOA | 10. or. |
| 10.1. Arau-hausteak | |
| 10.2. Aktak | |
| 10.3. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko lizentziak | |
| 11. AGENTE TUTOREA | 11. or. |
| 11.1. Prestakuntza | |
| 11.2. Hitzaldiak | |
| 11.3. Bide-hezkuntza | |
| 11.4. Alkoholaren eta drogen kontsumoaren gaineko prebentzioa | |
| 11.5. Gizarte Ongizateko Sailarekin eta Adingabeen Fiskaltzarekin lankidetzan aritzea | |



1. MEMORIAREN HELBURUA ETA EREMUA

Memoria honen helburua Beasaingo herritarrei lan zerrenda baten berri ematea da, Udaltzaingoak 2025. urtean burututako lan, jarduera, zeregin eta proiektuen ingurukoa, baita zerbitzu honen jarduerari eta bilakaerari buruzko informazio estatistikoa eskaintzea ere. Dokumentu honek Udaltzaingoak herritarrei eskaintzen dien zerbitzuaren isla izan nahi du, gardentasun osoa bermatuz.

Lehen atalean, zerbitzuaren ezaugarri orokorrak, eskumenak eta baliabideak aurkezten dira. Hurrengo ataletan, eman diren zerbitzuen zerrenda azaltzen da, bai eta jarduera-eremuaren arabera egindako zereginak eta jarduerak.

Memoria honetan esku-hartze asko islatzen dira, baina, hala ere, ugariak dira itxuraz garrantzirik ez duten ekintzak, jasoak izateko behar den mailara iristen ez direnak baina herritarrentzat garrantzitsuak direnak.

2. GIZA BALIABIDEAK ETA ANTOLAMENDU EGITURA

Udaltzaingoa izaera zibileko erakunde armatu bat da, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legean ezarritako eginkizunak betetzen dituen eta esku hartzea eskatzen duen edozein larrialdi edo gatazkari berehala erantzuteko zerbitzua ematen duena.

365
egunetan
zerbitzua
urtean

6:30 - 21:30h
astelehenetik
ostiralera

09:00 - 21:00h
asteburuko
ordutegia

24h-ko
zerbitzua jaiegunetan eta
herriko jaietan

Udaltzaingoa 16 agentek osatzen dute, antolaketa-egitura honekin: agente-katea Udaltzaingoko ofizial orde buru batek eta lehen mailako 3 agentek osatzen dute. Agente horiek zerbitzua osatzen duten 3 lan-taldeetako bakoitzaren arduradunak dira.

Gainerako langileak, hau da, 12 agenteak dira eta 3 taldetan banatuta daude. Plantilla osatzen duten 16 agenteetatik, gaur egun 6 emakumeak dira, eta gainerako 10ak gizonezkoak.

Talde honen **batez besteko adina 42,1 urtekoa** da.

2025.urtean, Udaltzaingoaren ratioa **1,14 agentekoa** izan da 1.000 biztanleko. Kopuru hori Europar Batasunak gomendatutakoa baino askoz txikiagoa da, gomendioa **1,8 agentekoa** baita 1.000 biztanleko.



Beasaingo Udala

3. BALIABIDE TEKNIKOAK

3.1. Polizia ibilgailuak

Beasaingo
Udaltzaingoak 4
ibilgailuko parke
mugikorra du

Dacia markako turismo bat, SUV ibilgailua BMW markakoa
eta Yamaha markako 2 motozikleta.

SUV ibilgailua inbertsio berria da, eta lehengo **garabi-ibilgailua ordezkatzeko du**. Auto honek matrikulak irakurtzeko kamera bat du; kamera horrek, datuak jaso ahala, Trafikoko datu-basearekin alderatzen ditu, baita ibilgailua martxan dagoenean ere. Ibilgailuren batek oharren bat badu, alarma bat pizten da agenteari gertakari motaren berri emateko.

Besteak beste, honako egoera hauetaz ohartarazten du: ibilgailuak **nahitaezko aseguruak ez badu, lapurtutakoa bada** edo **ibilgetzeko aginduren bat badu**.

3.2. Transmisioak

Polizia-bulegoetan kokatutako
oinarizko emisore 2

2 emisora
eramangarri

16 transmisore
mugikor

3.3. Trafikoa kontrolatzeko kamerak

2025ean trafikoa zaintzeko kamera berriak sartu dira. Dispositibo horiei esker, urte osoan zehar izan ziren hainbat gertakari argitu dira.


Nabarmendu behar da kamera horiei esker hainbat gidari identifikatu ahal izan direla, ondasun publikoak zein pribatuak kaltetu dituztenak.

Era berean, tipologia desberdineko delituetan inplikaturako hainbat pertsona identifikatu ahal izan dira: ondarearen aurkako delituetan, bide-segurtasunaren legearen aurkako delituetan eta abarretan inplikaturakoak.



4. HAINBAT ZERBITZUEN GARAPENA

Beasaingo Udaltzaingoa 1701 esku hartze izan zituen guztira 2024an, aurreko urtean baino 200 gehiago, hau da, % 13 inguru gehiago.



Esku hartze horiek honela banatzen dira: bide segurtasunari, herritarren segurtasunari, administrazio poliziarekin lotutako esku hartzeak eta osasun laguntzak.

Azpiraratzekoak dira, halaber, Tolosako Oria ertzain-etxean lan egiten duten ertzainekin batera egin diren prebentziozko zaintzak, Beasaingo jaietan egin zen baterako operatiboa, hiriko hainbat tokitan egin diren arma zurien kontrolak eta alkoholaren edo drogen eraginpean dauden gidariak detektatzeko baterako trafiko-kontrolak.

5. TRAFIKO SALAKETAK

2025an 4.909 trafiko salaketa izapidetu dira guztira, honela banatuta:

5.1. Zirkulazio Erregelamendu Orokorrean salaketak

Euskal Poliziako agenteek (udaltzainak eta ertzainak) 2.836 salaketa administratibo jarri dituzte guztira, eta 2024ko aldia, berriz, 1.473.

5.2. TAO eremuko salaketak


Araututako aparkaleku-eremuetan 1.905 ibilgailu atzeman eta zigortu dira, hau da, aurreko urtean baino % 5 gutxiago.

Nabarmentzekoa da **TAO gunea zabaltzeko delak 2025ean**. Udalerrri barruan hiru sektore bereizi sortu dira; horren helburua da ibilgailuen txandakatzea sustatzea eta **egoiliarrentzako/bertakoentzako eremuak** bultzatzea, Beasaingo auzoetan bizi diren pertsonei lehentasuna emateko.



5.3. Oinezkoentzako gunerako sarbideen kontroleko salaketak

Oinezkoen gunera gaizki sartzeagatik jarritako salaketei dagokienez, sarbideak kontrolatzeko kamerek 490 arau-hauste identifikatu dituzte.



2024an, 796 arau-hauste detektatu ziren; horrek esan nahi du 295 sarbide oker gutxiago direla, eta, beraz, oinezkoek eremu horietan zirkulazio librea izatea errazten duela.

5.4. Gehiegizko abiaduragatik salaketak


Beasaingo Udalak abiadura kontrolatzeko hainbat kanpaina egiten ditu urtero udalerriko hainbat gunetan. **2025ean 115 ibilgailu zigortu dira baimendutako abiadura gaingaitzeagatik.**

5.5. Alkoholaren eraginpean gidatzeagatik jarritako salaketak

Udaltzainek eta Ertzaintzako agenteek aldian-aldian kontrol bateratuak egiten dituzte, botatako arnasan baimendutakoa baino tasa handiagoa duten gidariak detektatzeko. **2025ean 3 salaketa proposatu dira arrazoi horregatik.**

5.6. Drogen eraginpean gidatzeagatik jarritako salaketak

Kasu honetan, **drogen eraginpean gidatzeagatik zigortutako gidariak 3 izan dira.**



Trafiko-salaketen alderaketa: 2023, 2024 eta 2025 urteak.



6. TRAFIKO ISTRIPUAK

Azken urteotan, Beasaingo Udalak istripu kopurua murrizten lagundu duten neurriak ezarri ditu, eta horiek ere larritasun txikiagokoak izatea lortu du. Murrizketa hori bide-azpiegitura hobetzeagatik gertatu da, bai eta Udaltzaingoa azken urteetan egiten ari den prebentzio- eta kontzientziazio-kanpainengatik ere.

Horrek guztiak lagundu du Beasaingo kaleetan gertatzen diren istripu gehienak txikiak izan daitezen eta adiskidetasunezko parteekin konpon daitezen.

Funtsezkoa da norabide horretan lanean jarraitzea eta bidea erabiltzen duten guztien babesa bermatzeko estrategia berriak ezartzea.

6.1. Kalte materialak eragiten dituzten istripuak

Udaltzaingoa parte hartu duen istripuak bakarrik zenbatzen dira.

Istripu horietan, inplikaturako gidariek agenteen presentzia behar dute dagokion txostena egiteko.

2025ean ezaugarri horiek dituzten 22 istripu artatu dira.

6.2. Zaurituak eragin dituzten istripuak

2025an 8 istripu izan ziren, zaurituak edo kalte handi samarrak eragin zituztenak. Horrek esan nahi du igoera txiki bat egon dela aurreko urtearekin alderatuta.

6.3. Polizia eginbideak dituzten istripuak

2025ean eginbide penalak ireki dira **Bide Segurtasunaren Legearen aurkako 5 delitu posiblerengatik.**

7. TRAFIKOKO ESKU HARTZEAK

7.1. Abandonatutako ibilgailuak

Abandonatutako ibilgailu bat atzeman ondoren, kudeaketak egin behar dira jabea edo gidaria aurkitzeko. Kudeaketa horiek negatiboak badira, ibilgailua bide publikotik kentzeko espediente hasiko da.

2025ean Hiri Hondakin Solidoaren 10 espediente hasi dira.

7.2. Bide segurtasunaren aurkako delituak

Bide Segurtasunaren aurkako delituengatik 5 atestatu izapidetu dira 2025ean.



7.3. Ibilgetutako ibilgailuak

Azken urte honetan, Udaltzaingoak **86 ibilgailu ibilgetu ditu**, batez ere akats teknikoengatik edo nahitaezko asegururik ez izateagatik.

Arestian aipatutako matrikula-irakurgailua erosi denez, ibilgetzeak % 300 igo dira aurreko urteko datuekin alderatuta.

7.4. Kirol probetarako baimenak

2025ean, **trafikoan segurtasun lanak egiten lagundu da 37 kirol probatan**, aurreko urtean baino bi gehiago.

8. POLIZIA JUDIZIALA

Azken urteotan, Beasaingo Udal Poliziak egiten dituen polizia judizialeko lanak **nabarmen igo dira**, gero eta gehiago dira gure bulegoak salaketa penalak jartzeko erabiltzen dituzten herritarrak.

Era berean, areagotu egin dira agenteek udalerrian egiten diren delituengatik izapidetzen dituzten atestatuak.

8.1. Udaltzaingoaren bulegoetan jasotako salaketak

Beasaingo Udaltzaingoaren bulegoetan agenteek jasotako 186 salaketei dagokienez, iruzurrezko kobrantzengatik eta ebasketengatik jarritakoak nabarmendu ditzakegu.

2025an 147 salaketa jaso zirela kontuan hartuta, **igoera % 20ekoa izan da** aurreko urtearekin alderatuta.

8.2. Bideratutako atestatuak

Udaltzaingoak 50 atestatu izapidetu ditu 2025ean, kontuan hartuta 2024an 21 atestatu tramitatu zirela, **igoera % 125tik gorakoa izan da**.

8.3. Babes aginduak

Genero-indarkeriako eta etxeko indarkeriako delituekin lotutako epaietatik 17 urruntze-agindu jaso dira, hau da, % 50eko igoera izan da.

Kasu horietan, Udaltzaingoko agenteen lana prebentziozko zaintzak egitea oinarritzen da, epaileak ezarritako kautelazko neurriak betetzen direla kontrolatzeko.

8.4. Lokalizazio iraunkorreko aginduak

Udaltzaingoak etengabe lokalizatzeko 5 aginduen kontrola egin du. Igoera txiki bat izan da 2024. urtearekin alderatuta; urte hartan, agenteek bizilekuan egoteko agindu bakarra kontrolatu zuten.




8.5. Ofizio judizialak

Ofizio judizialak epaitegietatik jasotzen diren aginduak dira, eta udaltzainek, udaltzain gisa dituzten eginkizunen barruan, bete egin behar dituzte.

2025ean 41 ofizio jaso dira, eta horietako gehienak epaiketetara deitzeko zedulak izan dira.

8.6. Dokumentazioa galtzea

77 salaketa izapidetu dira 2025ean dokumentazioa galtzeagatik. Kopurua % 30 igo da aurreko urtearekin alderatuta, urte horretan 131 salaketa izapidetu baitziren arrazoi beragatik..





9. HERRITARREN SEGURTASUNA

Herritarren segurtasunak berebiziko garrantzia du herritarren ongizaterako eta egonkortasunerako. Zaila da datuekin kuantifikatzea, baina funtsezkoa da gizartearen funtzionamendu harmoniatsurako.

Beasaingo Udaltzaingoak, ahal den neurrian, berariazko zaintza kanpainak egiten ditu, herritarrek Beasain leku segurutzat har dezaten.

Kanpaina horien artean, **“besarkada solidarioaren” metodoaren bidez lapurretak saihesteko egiten diren zaintza espezifikoak nabarmendu** behar ditugu. 2025ean, nabarmentzekoa da, **halaber, arma zurien erabilera detektatzeko egin diren zaintza prebentiboak, Ertzaintzako agenteekin lankidetzan estuan.**

9.1. Manifestazio eta kontzentrazioak

2025ean behar bezala jakinarazitako 59 manifestazio edo kontzentrazioari eman zaie estaldura.

9.2. Herritarren Segurtasunari buruzko Legearen arau-hausteen salaketak

Udaltzaingoak 21 zehapen-proposamen egin zituen Herritarren Segurtasunerako Legea hausteagatik, eta horien artean nabarmentzen dira bide publikoan substantzia psikotropikoak kontsumitzea edo edukitzea eta agintaritzaren agenteekiko errespetu-faltak.

10. POLIZIA ADMINISTRATIBOA

Polizia administratiboa da udalak hainbat lege kontrolatzeko eta udal ordenantzak kontrolatzeko duen tresna. Zeregin hori funtsezkoa da herritarren ongizatean, askotan bizilagunen arteko eztabaidak saihestuz.

Polizia administratiboaren beste eginkizunetako bat herritarren eskubideak eta jabetza babestea da.

2025ean, Udaltzaingoak mota desberdineko 1.200 espediente administratibo baino gehiago izapidetu ditu, hala nola ondare erreklamazioak, oinezkoentzako gunera sartzeko baimenak, ordutegi kontrola duten gunetan aparkatzeko eskaeren kudeaketa, etab.

10.1. Arau-hausteak

2025ean 49 espediente ireki dira hainbat udal ordenantzen aurkako arau-hausteengatik.

10.2. Aktak

Udaltzainek 82 akta egin dituzte, eta obra egiteagatik egindako akta guztien artean, beharrezko baimenik gabe egindakoak nabarmendu dira.

10.3. Arriskutsuak izan litezken animaliak edukitzeko lizentziak



Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko 3 lizentzia kudeatu dira.



Beasaingo Udalak

11. AGENTE TUTOREA

2023an agente tutorearen figura sortu da. Udaltzain honen funtzioak asko alda daitezke, baina funtsean gazteak babestu, hezi eta laguntzera bideratuta daude. Beasaingo Udaltzaingoaren kasuan, **partikularren arteko gatasketan bitartekaritza lanak ere egiten ditu.**

11.1. Formakuntza

2025ean, agente tutoreak bere prestakuntzarekin jarraitu du, eta ikastaro hauek egin ditu:

Suizidio-jokabideak
hautematea eta esku hartzea

Agente Tutoreentzako
prestakuntza, segurtasun
digitalaren eta adingabeen
arloan

11.2. Hitzaldiak

Herriko ikastetxeetan emandako hitzaldiei dagokienez, DBHko 1. mailako ikasleekin aurreko urteko dinamikari jarraipena eman zaio; hau da, jazarpena eta ziber-jazarpena landu dira.

DBHko 2. mailako ikasleei dagokienez, sare sozialei buruzko hitzaldi bat gehitu da. Horretarako, "aulkiaren jolasarekin" ezaguna den lan dinamika bat inplementatu da.

Prestakuntza hori 600 ikasle ingururi eman zaie, Beasaingo hiru ikastetxetan banatuta: Andramendi Ikastola, Txindoki Institutua eta La Salle ikastetxea..

11.3. Bide-hezkuntza

Bide-heziketarekin jarraituz, Txindoki institutuko Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleei "Don't be Dummy" programa eskaini zitzaion. Bertan, alkohola eta drogak kontsumituta gidatzeak ekar ditzakeen ondorioen berri eman zitzaion.

11.4. Alkoholen eta drogen gaineko kontsumoaren prebentzioa

Herriko jaien aurretik, udaltzainek eta ertzainek hainbat hitzaldi egin zituzten Beasaingo eta Lazkaoko ikastetxe guztietan, eta gazteei zenbait jarraibide eskaini zitzaizkien intoxikazio etilikoak, borrokak eta mendekotasun kimikoa prebenitzeko.



11.5. **Gizarte Ongizateko Sailarekin eta Adingabeen Fiskaltzarekin lankidetzan aritzea**

- **Bi atestatu bideratu ziren adingabeen fiskaltzara**, eskolako ustezko jazarpen kasuengatik, eta hirugarren bat, adingabe batek egindako ebasketa bat dela eta.
- **Foru Aldundiko Adoleszentzia eta Familia Zaintzeko eta Gizarte Politiketako Departamentuarekin** lankidetzan, familia baten jarraipena egin da, nerabeak aitarekin egin beharreko bisitak betetzen dituela ziurtatzeko.
- 2025ean, nerabeen arteko hainbat gertakari izan ziren. Hori dela eta, Beasaingo Udaltzaingoak, **Agente Tutorearen bitartez**, hainbat ekintza antolatu zituen herriko ikastetxeekin batera. Helburua izan zen ikasleek sortutako gatazkei konponbidea bilatzea eta, bide batez, aurrerantzean babesteko baliabideak izatea. Kasu bakoitza modu desberdinean landu zen: batzuetan, zuzenean ikastetxeko arduradunekin hitz egin zen; beste batzuetan, berriz, gurasoen eta nerabeen arteko **aurrez aurrekoak (elkarrizketak)** egin ziren udaltzaingoaren egoitzan.
- Lantutako gaiak: gatazkak, eskola-jazarpena, datu pertsonalen erabilera okerra (pasahitzak lagunei ematea), mugikorraren bidezko irudi-erabilera eta mezu desegokiak partekatzea.
- Ikastetxeekin eta Beasaingo Udaleko **Gizarte Ongizate Sailarekin** elkarlanean, hainbat arazorengatik egoera zaurgarrian dauden familiei jarraipena egin zitzaien. Kasu horietan, egoera hori pairatzen duten haur eta nerabeen eskolatzea bermatzeko jarraipen estua egin zen.
- Hainbat jardunalditan **kognizio-arazoak izan ditzaketen adineko pertsonak** antzeman dira, eta horiekin esku-hartze bereziak egin dira